



Uxue Lardizabal Iturralde naiz, 1999ko maiatzaren 26an jaio nintzen Goierriko herri txiki batean, Seguran. Bitxia dirudien arren, Lardizabal kalean bizi naiz, Lardizabal jauregiaren alboan. Egun, 2.batxilergoko ikasketak burutzen ari naiz Beasaingo BHI Institutuan eta datorren urteari begira... datorren urteari begira zalantza ugari ditud. Osasunarekin lotutako ikasketak egiteko asmoa dut, baina mediku izango naiz ala erizain? Hainbat eta hainbat aldiz errepikatu didaten galdera horri erantzunik eman ezinda nago: merezi al du gaztaroa igarotzen uztea ikasketa batzuegatik? Ez dakit ba, agian bai, agian ez.

Txiki-txikitatik gustuko izan dut irudimenari leihoak zabaltzea eta bururatzen zitzaidana kontatzea. Bai, idaztea gustuko dut, baina are gehiago gustatzen zait bat batean bururatzen zaidana kontatzea. Horretaz gain, baditut beste hainbat zaletasun ere. Horien artean aurkitzen da mendizaletasuna. Mendia da gogoetak egiteko toki aproposenetako bat niretzat, esna egonik amets egiten baitut bertan eta isiltasunak esnatzen baitizkit ideiak.

[pdf Uxue Lardizabal Iturralde, Begiak: mundu ilun honen lekuko izkutuak \(60 KB\)](#)